

ATTEST

**EUSKARA ZUZENDARITZA NAGUSIAREN
PLAN ESTRATEGIKOA 2009-2011**


**AURKEZPENA
INTERES TALDEEI**

2009ko irailak 25




www.attest.es

PLAN ESTRATEGIKOAREN PROZESUA



HAUSNARKETA ESTRATEGIKOAREN PROZESUA



Barne analisia

EZNren aktibitatea zereginetan antolatuta dago.

Zeregin hauek, maiatzaren **20ko 40/2008 Foru Dekretuan**, Kultura eta Euskarako Departamentuaren egitura organikoa eta funtzionalari buruzkoan idatzita daude.

EZNk zeregin hauei erantzuna emateko asmoarekin, **zerbitzu** nahiz **produktu** batzuk eskaini edo ekoizten ditu eta **estruktura** batean antolatzen da.

Horrez gain, aipaturiko ekintza nahiz produktuak, **interes talde** desberdinetara bideratzen ditu ahalik eta etekin handiena lortzeko asmoarekin.



Definitutako INTERES TALDEAK

1 GFA

- 1.1 Lehendakaritza
- 1.2 Ogasuna
- 1.3 Errepideak
- 1.4 Ingurumena
- 1.5 Kirolak
- 1.6 Diputatu Nagusiaren Kabinetea

2 HIZKUNTZA INDUSTRIA

- 2.1 Gipuzkoa Berritzan

3 HPS

- 3.1 Hizkuntza Politikaren Sailburua

4 GIZARTEA**5 UDAL TEKNIKARIAK**

- 5.1 Irun
- 5.2 Errenteria
- 5.3 Bergara
- 5.4 Usurbil
- 5.5 Billabona
- 5.6 Deba
- 5.7 Eskoriatza

6 ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

- 6.1 BFA
- 6.2 AFA
- 6.3 Nafarroako Gobernua

7 IKASTETXEAK

- 7.1 URNIETAKO SALESIANOS
- 7.2 BIDEBIETAKO ESKOLA PUBLIKOA
- 7.3 GIE

8 IKASLEAK

- 8.1 ITZULPEN FAKULTATEA-Gasteiz

9 ETORKINAK

- 9.1 HELDUAK Elkarte

10. HEDABIDEAK

- 10.1 GOIENA
- 10.2 EKT

11. ENPRESAK

- 11.1 IMH
- 11.2 INSTAGI
- 11.3 Ekonomilarien Elkarte
- 11.4 ELKARGI

12. ARGITALETXEAK

- 12.1 Elkar
- 12.2 Erein
- 12.3 Alberdania
- 12.4 Susa

13. ELKARTEAK

- 13.1 Topagunea
- 13.2 Ttakun

14. UNIBERTSITATEAK

- 14.1 EHU ERREKTORETZA ORDEZKOA

15. UDALAK

- 15.1 Donostia
- 15.2 Tolosa
- 15.3 Ordizia
- 15.4 Zestoa
- 15.5 UEMA

16. IVAP**17. DONOSTIAKO EUSKARAREN UDAL PATRONATOA****18. HORNITZAILEAK**

- 18.1 EMUN
- 18.2 ILAZKI
- 18.3 TISA

19. KUTXA

Kanpo analisisia

Bilera aurrez aurre
izandako interes taldeak

1	GFA Lehendakaritza	Gfa: lehendakaritza
2	GFA	Ogasuna
		Errepideak
		Ingurumena
		Kirolak
3	Hizkuntza Industria	Gipuzkoa Berritzen
4	HPS	Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
5	Udal teknikariak	Irun
		Hondarribia
		Bergara
		Usurbil
		Billabona
		Deba
		Eskoriatza
		UEMA
6	Bizkaia	BFA
7	Araba	AFA
8	Nafarroa	Nafarroako gobernua
9	Ikastetxeak	Urnietako Salestarrak LH
		Bidebietako eskola publikoa
		GIE
10	Etorkinak	Helduak elkarte
11	Hedabideak	Goiena
12	Hedabideak	EKT
13	Enpresak	IMH
14	Enpresak	Instagi
		Iturginen elkarte
15	Enpresak	Elkargi
16	Argitaletxeak	Elkar
17	Argitaletxeak	Erein
		Alberdania
18	Argitaletxeak	Susa
19	Elkarteak	Topagunea
		Ttakun
20	Unibertsitateak	EHU Euskara Errektoreordetza
21	HAEE-IVAP	HAEE-IVAP
22	Donostia	Donostiako Euskararen Udal Patronatua
23	Hornitzaileak	Emun
24	Hornitzaileak	Ilazki
25	Hornitzaileak	Tisa
26	Kutxa	Kutxa

Kanpo analisisia

Plan Estrategikoan garatutako helburuak taldekatu dira GFA Kudeaketa Estrategiko Planean (KEPa) finkaturiko estrategietan:

ESTRATEGIA	HELBURUAK
1.- GIPUZKOA ELEBIDUNA-GFA ELEBIDUNA	H6: ESTRATEGIAREN ETA HELBURUEN ARABERA, EZN-REN ESTRUKTURA BERRANTOLATU
	H7: NORMALKUNTZA ETA ITZULPEN ATALEN ARTEKO KOORDINAZIOA
	H8: GIZA BALIABIDEAK HANDITU
2.- BERRIKUNTZA	H10: I+G+B BULTZATU
3.- EUSKARAREN BIZIBERRITZEA ETA NORMALKUNTZA (KEPa 1.2)	H2: EUSKARAREN ERABILERA INDARTU ALDUNDIAN ETA GIPUZKOAN
	H12: GFA LANGILEEN PRESTAKUNTZA INDARTU
4.- LIDERGO PARTEKATUA (KEPa 2.5)	H3: LIDERGOA SUSTATU
	H5: KOMUNIKAZIO LANDU
	H11: ERAKUNDEEN ARTEKO HIZKUNTZA POLITIKA BATERATU
5.- INPLIKATZEA ETA PARTE HARTZEA SUSTATZEA (KEPa 2.6)	H4: INTERES TALDEAK EZAGUTU ETA ERLAZIOA SISTEMATIZATU
6.- GOBERNU ETA ADMINISTRAZIO TRESNAK HOBETZEA (KEPa 2.7)	H1: PLANGINTZA TRESNAK INDARTU
	H9: DIRU LAGUNTZEN POLITIKA ETA ERAGINKORTASUNA NEURTU
	H13: HOBEKUNTZA TRESNAK ETA ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA INDARTU
	H14: JARRAIPEN ETA NEURKETA TRESNAK GARATU
	H15: PLAN ESTRATEGIKOAREN JARRAIPENA EGIN

EGINKIZUN NAGUSIAK	HELBURUAK	EKINTZA KOP.= 71	HOBEKUNTZA ZIKLOA
<ul style="list-style-type: none"> Zuzendaritzaren kudeaketa sistema hobetu 	H1: PLANGINTZA TRESNAK INDARTU	3	P
<ul style="list-style-type: none"> Herritarren hizkuntza demanda neurtu GFAn Euskara Aldundiko langileen eguneroko lanean lekua izan LAEn lagunduz, hizkuntz beharrak kontutan eduki eta aplikazio informatiko eleaniztunak sortu (IZFE) 	H2: EUSKARAREN ERABILERA INDARTU ALDUNDIAN ETA GIPUZKOAN	10	D
<ul style="list-style-type: none"> GFA-ko goi karguen euskararen erabilera sustatu Hitzaldi politiko eta ekintzen bat egitea GFA hizkuntz eredu izan 	H3: LIDERGOA SUSTATU	5	
<ul style="list-style-type: none"> Interes Taldeen (gizarte eragileen) parte hartzea eta elkar lana sustatu 	H4: INTERES TALDEAK EZAGUTU ETA ERLAZIOA SISTEMATIZATU	3	
<ul style="list-style-type: none"> Barne eta Kanpo komunikazioa sustatu behar da Aldundi barruan nahiz kanpoan, EZN eta hauen ekintzak ezagutzera eman 	H5: KOMUNIKAZIO SISTEMATIKA LANDU	9	
<ul style="list-style-type: none"> Euskararen erabilera normalizatzeko Kanpo eta Barne zerbitzutan antolatzearen beharra hausnartu 	H6: ESTRATEGIAREN ETA HELBURUEN ARABERA, EZN-REN ESTRUKTURA BERRANTOLATU	3	
<ul style="list-style-type: none"> Normalkuntza eta Itzulpen atalen koordinazioa sustatu Itzulpen politika finkatu Itzulpenen kudeaketa hobetu (itzulpen eskaerak, itzultzaile-laguntzailea, eskatzaileen prestakuntza, datuen beharra) 	H7: NORMALKUNTZA ETA ITZULPEN ATALEN ARTEKO KOORDINAZIOA	6	
<ul style="list-style-type: none"> EZN-ko giza baliabideak helburu eta zereginekin bat etorri 	H8: GIZA BALIABIDEAK HANDITU	2	
<ul style="list-style-type: none"> Diru laguntzen koordinazioa hobetu eta eraginkortasuna neurtu 	H9: DIRU LAGUNTZEN POLITIKA ETA ERAGINKORTASUNA NEURTU	4	
<ul style="list-style-type: none"> Hizkuntzen industria sustatu EZN gauza berriak egiteko "akullu" izan Gizarte erantzunkizunean oinarritutako, hizkuntza minoritarioen ikerketa egin 	H10: I+G+B BULTZATU	6	
<ul style="list-style-type: none"> Administrazio Publikoen arteko hizkuntza politika bateratu bat lortu (HAKOBA) 	H11: ERAKUNDEEN ARTEKO HIZKUNTZA POLITIKA BATERATU	3	
<ul style="list-style-type: none"> GFA-ko langileek euskaraz lan egiteko gaitasuna lortu. 	H12: GFA LANGILEEN PRESTAKUNTZA INDARTU	5	
<ul style="list-style-type: none"> Euskararen erabilera handitzeko hobekuntza tresnak martxan jarri 	H13: HOBEKUNTZA TRESNAK ETA ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA INDARTU	6	C
<ul style="list-style-type: none"> Euskara lan hizkuntza bezala zenbat erabiltzen den neurtzeko ebaluaketa sistema bat garatu 	H14: JARRAIPEN ETA NEURKETA TRESNAK GARATU	5	
<ul style="list-style-type: none"> Plan Estrategikoan definitutako ekintzak martxan jarri behar dira eta behar diren ekintza zuzentzaileak abian jarri helburuak lortzeko 	H15: PLAN ESTRATEGIKOAREN JARRAIPENA EGIN	1	A

Helburua:	H1: PLANGINTZA TRESNAK INDARTU
Kodea	Ekintza
1.1.	Aldundiko KEPa oinarri, EZNren urtero kudeaketa plana egin helburuak eta ekintzak finkatuz.
1.2.	Helburuak gaur egun eskaintzen diren zerbitzu zein produktuekin bat doazen aztertu eta beharrezkoa bada, egokitzapenak egin.
1.3.	EZNren giza baliabideak kudeatzeko plana garatu (prestakuntza plana, garapen profesionala, motibazioa, harrera txostena, langileen asetasun maila, etab.).

Helburua:		H2: EUSKARAREN ERABILERA INDARTU ALDUNDIAN ETA GIPUZKOAN
Kodea	Ekintza	
2.1.	EZNren zerbitzu eta produktuen katalogo bat egin.	
2.2.	Erabilera Planaren batzordean ALETeko teknikarien parte hartzea beharrezkoa denean.	
2.3.	Erabilera planetan BIKAIN irizpideak era estruktural batean sartu eta Erabilera planak dituzten departamenduak BIKAIN ziurtagirirantz bideratu.	
2.4.	Aldundiaren kanpo demanda linguistiko kuantifikatu, GFaren eta udalen arteko hizkuntz harremana finkatzeko.	
2.5.	Enpresetan euskara sustatzeko, hauekin loturiko agenteekin (adib. Garapen) elkarlanean aritu, gure <i>know-how</i> konpartitzeko eta euskararen ikerketa proiektuak bultzatu eta zabaldu.	
2.6.	Lurralde antolaketari buruzko politikatan hizkuntzaren gaineko gaia nola txertatu daitekeen hausnartu, eta bideragarriak izan daitezkeen Aldundiko proiektuetan, hauen inpaktu soziolinguistikoa aurrez planteatu.	
2.7.	Berrikuntza Zuzendaritzarekin batera, euskarak beraiek garatutako proiektuetan zein leku izan dezaketen aztertu.	
2.8.	Aplikazio informatiko eleaniztunak sortzeko neurriak martxan jarri, erabilitako aplikazioetan eta aplikazio berriak garatzeko orduan (IZFE).	
2.9.	Ipupomamua proiektua martxan jarri.	
2.10.	Mintzola proiektuari laguntza instituzionala eman.	

Helburua:	H3: LIDERGOA SUSTATU
Kodea	Ekintza
3.1.	Diputatu Nagusiaren Kabinetearekin zuzendaritza mailako bilerak martxan jarri.
3.2.	Hitzaldi politiko eta egiten diren ekintzen kontraesana zuzendu, lidergoa praktikatu. Diputatu Nagusiaren agerpen publikoetan euskarari presentzia gehiago eman eta harreman politikoetan euskaraz ekoizteari arreta gehiago jarri. ERALAN 2 proiektuan oinarrituta.
3.3.	Funtzio Publikoarekin Zuzendaritza bilerak berreskuratu.
3.4.	LAE aurrera eramateko batzordean aktiboki parte hartzea, hizkuntz ordezkari baten bidez.
3.5.	Euskara 21ekin lotura: diputatu nahiz zuzendarietzako jardunaldi bat garatu eta aurkezpena egin.

Helburua:	H4: INTERES TALDEAK EZAGUTU ETA ERLAZIOA SISTEMATIZATU
Kodea	Ekintza
4.1.	Interes taldeekiko erlazio kanalak eta sistematika definitu eta martxan jarri.
4.2.	EZNk norekin landu behar dituen aliantzak hausnartu, bai kanpo entitateekin zein Aldundiko gainontzeko departamenduekin.
4.3.	Udal<>Ekin programan, etorkinekin egin behar den estudio bukatzerakoan, kolektibo honekin euskara indartzeko indar gehiago daukaten ekintza posibleak hausnartu eta martxan jarri.

Helburua:		H5: KOMUNIKAZIOA LANDU
Kodea	Ekintza	
5.1.	Komunikazio Plana garatu (barne eta kanpo komunikazio plana).	
5.2.	Departamenduetako prentsa aurrekoak zein hizkuntzatan eman daitezkeen (eta zenbat ematen diren) diagnostikoa egin Aldundi osoan.	
5.3.	Zerbitzuaren web orria hobetu, Web 2.0 ikuspegi gehiago emanez, interes taldeekin harremana estutu eta hobetzeko.	
5.4.	HIZBAT eta erabilera planetako batzordetatik departamentura informazioa zabaltzeko tresna sortu eta martxan jarri zein baliabide behar diren kontuan edukita.	
5.5.	UETS intraneta martxan jarri eta tresna honen bitartez praktika onen bateratzea eta zabaltzea egin.	
5.6.	Diruz lagundutako eduki eta proiektuak Interes taldeei helarazteko sistema sortu (adibidez E-buletina) eta martxan jarri.	
5.7.	Beste departamentuen egitasmo edo programen kanpainetan, Euskararen erabileraren aldeko kanpainak txertatzeko aukerak aztertu.	
5.8.	HAKOBA bitartez euskara komunikazio kanpainak, Aldundi eta EJ artean, koordinatu.	
5.9.	KEPa eta Urteroko Kudeaketa Plana EZNko langileei aurkezteko, urtero mintegi bat egin.	

Helburua:	H6: ESTRATEGIAREN ETA HELBURUEN ARABERA, EZN-REN ESTRUKTURA BERRANTOLATU
Kodea	Ekintza
6.1.	Gaur egun EZNren atalak (Normalkuntza eta Itzulpena) orekatu eta berrantolatzearen hausnarketa egiten hasi giza baliabideen beharrekin lotura izanik.
6.2.	Kultura Zuzendaritzak alde batetik eta Euskara Zuzendaritzak bestetik, bere gain hartu behar dituen arloen banaketa garbia egin.
6.3.	EZNko lanpostuen balorazio berri bat egitea bultzatu.

Helburua:	H7: NORMALKUNTZA ETA ITZULPEN ATALEN ARTEKO KOORDINAZIOA
Kodea	Ekintza
7.1.	Itzulpen politika finkatu: zer itzuli behar den eta zer ez zehaztu, testu mota, egilea eta hartzailea kontutan izanik.
7.2.	Itzulpenen kudeaketarako tresna informatikoa garatu eta martxan jarri (beharrak definitu, azterketa tekniko eta funtzionala eginez).
7.3.	EZNren normalkuntza eta itzulpen arteko koordinazioa landu zerbitzu bakoitzaren bilera nagusitan beste atalburuaren parte hartzea bultzatuz.
7.4.	Itzulpen datu baseak (eLena) interes talde batzuei ireki (aurretik datu pertsonalen babeseko legea gaindituz).
7.5.	Eredugarriak izan daitezkeen dokumentuak (inprimaki, eskaera orri, gonbidapen...) eta Glosarioak erabiltzaileen esku utzi Intranet-ean eta garatu beharreko Extraneten.
7.6.	Kanpoko itzultzaileekin (hornitzaileekin) itzulpenen kudeaketa errazteko Extranet garatu

Helburua:	H8: GIZA BALIABIDEAK HANDITU
Kodea	Ekintza
8.1.	Funtzio Publikoari egindako giza baliabideen eskaera indartu eta bultzatu.
8.2.	Itzultzaile laguntzaileen mapa osatu eta hauek burutu beharreko eginkizunak hobeto definitu.

Helburua:	H9: DIRU LAGUNTZEN POLITIKA ETA ERAGINKORTASUNA NEURTU
Kodea	Ekintza
9.1.	EZNren diru laguntzen politika dokumentatu eta gizarteratu IT.
9.2.	Diru laguntzen eraginkortasuna neurtzeko metodologia finkatu.
9.3.	Diru laguntzekin garatzen diren eduki eta proiektuetako jasotzailearen iguripen eta asebetetzea jaso.
9.4.	Diru laguntzen kudeaketarako aplikazioan hobekuntzak garatu departamentuan, jarraipen zehatz eta errazagoa emateko.

Helburua:	H10: I+G+B BULTZATU
Kodea	Ekintza
10.1.	ERALAN 2 euskararen diskurtsoa aldatzeko eta euskara enpresaren mesedetan jartzeko zer egin daitekeen hausnartu.
10.2.	Gizarte erantzukizunaren (RSC) aldetik, Berrikuntza Zuzendaritzarekin batera, hizkuntza minoritarioen ikerketa egin.
10.3.	Gipuzkoa Berritzen-etik aurrera eramaten ari diren proiektuen jarraipena egin eta behin emaitzak lortutakoan, EZNren posizionamendua zein izan behar duen hausnartu, definitu eta ekintza berriak martxan jarri.
10.4.	“Hizkuntzen Industria Clusterra” egituratzeko laguntza instituzionala eman.
10.5.	Diru laguntzetatik sortzen diren arlo sozioekonomiko ekintzak gizarteratzea.
10.6.	Berrikuntza Departamentuarekin batera, “euskara eta berrikuntza” proiektuak definitu eta promozionatu.

Helburua:	H11: ERAKUNDEEN ARTEKO HIZKUNTZA POLITIKA BATERATU
Kodea	Ekintza
11.1.	HAKOBA berreskuratu eta Aldundien protagonismoa bultzatu, EZNrentzat interesgarri diren gaiak jorratzeko.
11.2.	HAKOBA batzorde teknikoari izaera edo balio ofiziala eman. Beti ere, batzorde politikoaren islapean. (Eusko Jaurlaritzako HPSrekin elkarlanerako protokolo bat adostu).
11.3.	HAKOBAn batzorde teknikoak jorratutako diru laguntzen gaia berreskuratu.

Helburua:	H12: GFA LANGILEEN PRESTAKUNTZA INDARTU
Kodea	Ekintza
12.1.	Itzulpen eskatzaileentzako eta itzultzaile laguntzaileentzako formazioa prestatu (GFAko prestakuntza orokorraren barruan).
12.2.	Aurreko plangintzaldietan derrigorrezko hizkuntza eskakizuna bete gabe gelditutako langileen plan banakakoak prestatu eta kudeatu IV. Plangintzaldiaren barne (2008-2012).
12.3.	Hizkuntza normalizazioari buruz, GFAko formazio plan orokorrean, kurtso orokorrak (adibidez “Hizkuntz normalizazioa nire lanean”, “Ipini zure ordenagailua euskaraz”) eta espezifikoak sartu.
12.4.	HIZBAT batzordeko kideen prestakuntza soziolinguistikoa derrigorrezkoa ezarri.
12.5.	“Bulego elebiduna” ideia garatu, Aldundiko langileak euskararen garrantziaz kontzientziatzeko, eta ekintza errazak martxan jartzeko eguneroko lanean.

Helburua:	H13: HOBEKUNTZA TRESNAK ETA ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA INDARTU
Kodea	Ekintza
13.1.	HIZBAT batzordeko kideekin <i>focus group</i> bitartez interesezko gaiak identifikatu eta gero hobekuntza taldea sortu.
13.2.	Ilazkirekin batera ALET programan hobekuntza ekintzak definitzeko lan talde bat sortu.
13.3.	EZN LAE-runtz bideratzeko Kalitate Kudeaketa Sistema bat definitu eta finkatu: ISO 9001.
13.4.	Ekintza prebentiboak definitu laneko arriskuen gaian eta lan kargak orekatu.
13.5.	GFA (Jauregian) ezarritako Ingurugiro Kudeaketa Sistema ISO 14001 lagundu.
13.6.	EZN berdintasun batzordean hartutako erabakiak zabaldu.

Helburua:	H14: JARRAIPEN ETA NEURKETA TRESNAK GARATU
Kodea	Ekintza
14.1.	Euskara lan hizkuntza bezala zenbat erabiltzen den neurtzeko ebaluaketa sistema bat garatu Modernizazioarekin batera.
14.2.	Ordenan jarri "Hizkuntza markoa" (Erabilera Plana eta Hizkuntza Ofizialen plana ondo bereiztu edo batu).
14.3.	BIKAIN irizpideak oinarri, departamentuetako urteko helburu garbi eta neurgarriak definitu, departamenduaren arabera.
14.4.	Hizkuntza Ofizialak kudeatzen duen aplikazioa egokitu Departamendu bakoitzeko zerbitzu bakoitzaren arabera. Aplikazioa honek zerbitzu bakoitzari ibilbide espezifiko bat eramatea ahalbideratu behar dio.
14.5.	Erabilera Planak kudeatzeko EJko behin betiko IRATI aplikazioaren baliagarritasuna aztertu, Aldundian erabiltzen denarekin alderatu eta zein erabili erabaki.

Helburua:	H15: PLAN ESTRATEGIKOAREN JARRAIPENA EGIN
Kodea	Ekintza
15.1.	Plan estrategikoaren jarraipena antolatu.